TOLOSAKO UDALA

Iragarkia

2026ko martxoaren 20an argitaratu zen Tolosako Udaleko Hizkuntza Normalizazioko teknikari plaza, bi gizarte langile plaza, informatikari teknikari plaza bat eta informatika teknikari laguntzaile plaza bat betetzeko hautaketa-prozesuko izangaien behin-behineko zerrenda, baita lehen ariketaren data eta lekua ere. Finkatu zen data 2026ko maiatzaren 14a izan zen.

ELA eta LAB sindikatuek udahiltzen negoziazioaren gorabeherak direla eta greba deitu dute data horretarako. Ildo horretatik, data aldaketa adostu du hautaketa prozesu bakoitzeko epaimahaiak. Data berria maiatzaren 21a izango da.

Beraz, aurreko guztia kontuan hartuta, alkatetza honek

EBAZTEN DU

1. 2026ko martxoaren 20an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako lehen ariketaren data bertan behera uztea.

2. Hizkuntza Normalizazioko teknikari plaza, bi gizarte langile plaza eta informatikari teknikari plazaren oposaketa faseko lehenengo probaren (teorikoa) eguna aldatzea datorren 2026ko maiatzaren 21ean (osteguna), goizeko 09:00etan, Tolosako Beotibar pilotalekuan (San Frantzisko pasealekua 4, 20400 Tolosa).

3. Informatikako teknikari laguntzaile plazaren oposaketa faseko lehenengo probaren (teorikoa) eguna aldatzea datorren 2026ko maiatzaren 21ean (osteguna), goizeko 11:30etan, Tolosako kultur etxean (Foruen Etorbidea, 1, 20400 Tolosa).

Ebazpen hau finkoa da, eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Ebazpenaren kontra, honako errekurtso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean, hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertzeko errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Tolosa, 2026ko apirilaren 17a.—Angel Martinez de Rituerto Arregi, alkatea. (2539)

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

Anuncio

Con fecha 20 de marzo de 2026 se publicó la relación provisional de aspirantes del proceso selectivo para la provisión de las plazas de Técnico de Normalización Lingüística, dos plazas de Trabajador Social, una plaza de Técnico Informático y una plaza de Técnico Auxiliar Informático del Ayuntamiento de Tolosa, así como la fecha y lugar del primer ejercicio. La fecha fijada fue el 14 de mayo de 2026.

Los sindicatos ELA y LAB, debido a las fluctuaciones en la negociación del udalhitz, han convocado huelga para esa fecha. En este sentido, el tribunal de cada proceso selectivo ha acordado un cambio de fecha. La nueva fecha será el 21 de mayo.

Por tanto, teniendo en cuenta todo lo anterior, esta Alcaldía

RESUELVE

1. Suspender la fecha publicada del primer ejercicio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 20 de marzo de 2026.

2. Fijar la fecha de realización de la primera prueba (teórica) de la fase de oposición de la plaza de Técnico de Normalización Lingüística, dos plazas de Trabajador Social y la plaza de Técnico Informático, el próximo día 21 de mayo del 2026 (jueves), a las 09:00 horas, en el frontón Beotibar de Tolosa (Paseo San Francisco 4, 20400 Tolosa).

3. Fijar el día 21 de mayo de 2026, jueves, a las 11:30 horas, en la Casa de Cultura de Tolosa (Avenida de los Fueros, 1, 20400 Tolosa), la fecha de la primera prueba (teórica) de la fase de oposición de la plaza de técnico auxiliar informático.

La presente resolución es firme y pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrán interponerse los siguientes recursos:

Con anterioridad al inicio de la vía judicial, la persona interesada podrá interponer recurso de reposición ante la Alcaldía, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. Todo ello, conforme a los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Asimismo, en lugar del recurso de reposición, o en el caso de interponerse contra la resolución del recurso, podrá presentar directamente recurso contencioso-administrativo en un plazo de dos meses desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. El recurso se presentará ante el Juzgado Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

Asimismo, si no hubiera resolución expresa, tanto para poner fin al procedimiento como para dar respuesta al recurso de reposición, el/la interesado/a podrá interponer en cualquier momento recurso contencioso-administrativo. Dicho recurso deberá interponerse ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

Tolosa, a 17 de abril de 2026.—El alcalde, Angel Martinez de Rituerto Arregi. (2539)

EK\CV GAO-I-2026-02539